

# ORDEZKOEN ARAUDI BERRIA

2026ko EKAINA

- **Ordezkoen araudi berria EHAAn argitaratu da**, 2012ko ordezkoen araudiak izandako aldaketa eta eguneraketak barnebiltzen dituena.
- Araudiaren zirriborroa orain dela hilabete batzuk landu ondoren argitaratu du Sailak. LABek egindako hainbat ekarpen jasota daude, baina beste hainbat gaitan galderak sortu zaizkigu. Era berean, **langileon artean ezinegona eta zalantza ugari sortu direnez, Hezkuntza Sailari argipenak eskatuko dizkiogu.**
- Araudia aztertu ondoren, hauek dira LABetik identifikatu ditugun **aldaketa nabarmenenak**:

## Ordezkapenen kudeaketa

- ✓ Ordezkapen bera 10 egunen buruan zuzenean ordezkatzeari **hautazkoa** izango da.
- ✓ **Lanaldi-aldaketetara egokitzeko aukera** egongo da, hautazkoa izango da; izan titularra jardunaldi osoan egotetik lanaldi-murrizketarekin itzultzen delako lanera; izan murriztutik lanaldi osoko erregimenera igarotzen delako.
- ✓ **Lanaldia osatzeko lehentasuna** izango dute dagoeneko ikastetxean lanean ari diren pertsonak.
- ✓ **Babestutako egoeran** daudenek, lehentasuna izango dute lanaldia osatzeko eskubideari dagokionez.

## 55 urtetik gorakoentzako plan espezifikoa

- ✓ Ikasturte hasierako esleipenetan, **lehenik lanaldi osoko plazak aukeratu** beharko dira, eta halakorik lortzen ez bada, lanaldi murriztuko plaza bat esleituko da eta, beharrezkoa izanez gero, lanaldia %100era osatzeko neurriak hartuko dira.

## Merezimenduen baremoa

- ✓ **Txandakatze handiko postuak:** Karrantza Harana, Lanestosa, Artziniega eta Turtzioz herrietan eta Arabar Errioxan kokatutako zentroetan **benetan irakasten emandako 2 hilabeteko, 2 puntu.**
- ✓ **Konplexutasun altuko edo oso altuko ikastetxeak:** EAEko HKI (Hezkuntza Konplexutasun Indize) altuko edo oso altuko ikastetxeetan **benetan irakasten emandako 2 hilabeteko, 2 puntu.**
- ✓ **Oinarrizko Lanbide Heziketa:** lanera joandako 2 hilabeteko, 2 puntu.